

ILARGIA

Gau on, ilargi,
zeruko izar dirdira
Erakuts lurrari
zure aurpegi xuria.

Aldakorra zara beti
Oi, ilargi amandrea.

Ilargi betea
Ilargi zaharra
Ilargi zuria
Ilargi berria

Aldakorra zara beti
Oi, ilargi amandrea.

Gau on, ilargi,
zeruko izar dirdira
Erakuts lurrari
zure aurpegi xuria.

ILARGIA

MUNDUAREN EZAGUTZA

Eguneko, asteko eta urteko ezaupideen baliatzea

- Asteko egunen ezagutzea.

IDATZIAREN EZAGUTZA

Ondareko testu batzuen ezagutzea

– Ilargia elementu garrantzitsua da mundu osoko kulturetan bai eta euskal mitologian. Ilargi-amandrea Amalurren alaba da. Laborantzari lotu tradiziozko osagai hau, maiz agertzen da ipuin mitologikoetan.

HAUTEMATEA, NABARITZEA, IRUDIKATZEA, SORTZEA

Jestua baldintza materialei egokitzea (tresnak, euskarriak, materiala)

(Fitxa)

Ttipiak / PS

–Zirtak Ilargiraino heltzeko hartzen duen bidea marraz ezazu (1. fitxa).

Objektuen ezagutzea, izendatzea, sailkatzea, deskribatzea, erkatzea, dituzten ezaugarrien arabera

(Fitxa)

Artekoak /MS

–Lerro bakoitzean, eredua bezalako ilargia atzemazu eta margo ezazu (2. fitxa).

Materiaren ezagutzea

–Ilargiaren fase desberdinen ezagutzea. Ilargi betea, Ilargi zaharra, Ilargi zuria, Ilargi berria.
–Ilargia Lurraren satelite natural bakarra dela jakitea.
–Lurretik ikusita Ilargiak hartzen duen forma lantzea (Ilargi-amandrea, Ilargiaren adarrak).
–Ilargiaren zikloa lantzea, Ilargiak Lurrean duen eraginaren lantzea (mareak).



1. fitxa